

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak ia 300.000 euro bideratu ditu irabazi-asmorik gabeko erakundeek energia eraginkortasunez erabil dezatela sustatzeko

Irekita dago instalazioak egokitu, energia berriztagarriak erabili eta mugikortasun iraunkorra bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak eskatzeko epea

Asteazkena, 2018.eko irailak 12

Nafarroako Gobernuak, Garapen Ekonomikoko Departamentuaren bitartez, ireki egin du irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzak eskatzeko epea, energia-eraginkortasuna sustatzeko, energia berriztagarriak ezartzeko eta mugikortasun iraunkorra bultzatzeko. Deialdiak eta haren oinarriak [NAOn argitaratuta](#) daude jada, eta deialdiak 297.268 euroko aurrekontua dauka esleitura.

Diru-laguntzak urriaren 11ra arte eskatu behar dira, Nafarroako Gobernuaren Internet-atarian dagoen izapide-katalogoan [dagokion fitxa](#) erabiliz.

Norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira laguntzak, eta, beraz, haiek kudeatzen dituen organoak (Industria, Energia eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak) ezarriko du lehentasun-ordena, erakunde eskatzaileen artean ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Ikusi bezala, aurtengo urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte deskribatutako eremuetan inbertsioak egin dituzten edo egingo dituzten eta Nafarroan egoitza duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek bideratuta dago deialdia soilik. Irabazi-asmorik gabeko erakundetzat hartzen dira 649/2015 Errege Dekretuaren (urriaren 23koa, Elkarteen Erregistro Nazionalaren Erregelamendua onartzen duena) arabera horrela erregistratuta daudenak. Horrez gain, sailkapen horren barruan sartzen dira Nafarroako Kooperatiben Erregistroan gizarte-ekintzako kooperatiba gisa kalifikatutakoak ere, Kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legeari jarraikiz.

Deialdiak berariaz kanpo uzten ditu tokiko erakundeak eta haien organismo autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak, eta tokiko erakundeetan gehiengo partaidetza duten fundazioak eta sozietate publikoak ere bai. Era berean, sindikatuek eta erakunde profesionalek ez dute diru-laguntzarik jasoko, ezta Nafarroako Aurrekontuen barruan deialdian jasotako proiektuak egiteko partida izenduna duten erakundeek ere.

Neurriak Nafarroako Energia Plana 2030 delako agirian ezarritakoa garatzen du. Planak, energia eraginkorrago kontsumitzea lortzeko asmoz,

energia-eredu iraunkorragorako trantsizioan laguntzen duten energia-hornitzaileen eta -kontsumitzaileen kooperatibak sustatzen ditu, eta, horretarako, teknologiaz baliatu eta lankidetzeta-lotura sozialak sendotu nahi ditu.

Prozedura sustatu beharreko hiru ardatzetan gauzatzen da: eraikinen barnean lehendik dauden argiztapen-instalazioak berritzea, energia berriztagarrien instalazioetan inbertitzea eta mugikortasun iraunkorra eta partekatua sustatzen duten ibilgailuak erostea, hala nola ibilgailu elektrikoak eta gehienez 9 pertsona edo salgaiak garraiatzera zuzendutakoak.